



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 7a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- 10-23/PRO-00002. Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- 10-23/PRO-00002. Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-23/POR-00050. Galdera, estatu frantsesak mugako pasaguneak irekitzea lortze alderako neurriei buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (4. or.).
- 10-23/POR-00051. Galdera, erregimen frankistaren agintari eta kolaboratzaileei emandako omenaldi, aintzatespen eta kondekorazioen gainean egitear dagoen berrazterketari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (4. or.).
- 10-23/POR-00052. Galdera, egunean joan-etorria egiteko Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus zerbitzuari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- 10-23/POR-00053. Galdera, Valle de Odieta SCLk Caparrosoko abeltegitzarrerako eskatu duen aldaketa funtsezkoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (6. or.).
- 10-23/POR-00054. Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren balizko handitze ilegalari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (7. or.).
- 10-23/POR-00055. Galdera, Nafarroan gaixo onkologikoendako arreta jarraitua ez ezartzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- 10-23/POR-00056. Galdera, Nafarroako Gobernuaren gardentasun ezari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).
- 10-23/POR-00057. Galdera, Nafarroako Gobernuak kontratu-euskarri indardunik gabe egiten duen gastu gero eta handiagoa zuzentzeko neurriei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (8. or.).

- 10-23/POR-00058. Galdera, ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeekiko hezkuntza ituna kentzeko erabakiak familiei eragiten dien arazoari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (9. or.).
- 10-23/POR-00059. Galdera, osasunaren egoeraren eta deitutako greben gaineko balorazioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (9. or.).
- 10-23/POR-00060. Galdera, EH Bilduren botoei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00061. Galdera, Espainiako Gobernuak bere finantziaziopearen baitan diren Nafarroako azpiegitura publikoekiko duen konpromisoari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00062. Galdera, Tuterako Hemodialisi Unitatea laster abiarazteak arretari ekarriko dion hobekuntzari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00063. Galdera, Agoitzen Flamasats enpresa ezartzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00064. Galdera, Osasunbidearen krisiari eta herritarrendako arreta eta profesionalen lanbaldintzak hobetzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (12. or.).
- 10-23/POR-00065. Galdera, nekazaritza-sektorearentzako laguntza-lerroei buruzkoa, energiaren zein lehengaien kostu igoerak sorturiko eragin ekonomikoa murrizte aldera. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (12. or.).
- 10-23/POR-00066. Galdera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- 10-23/POR-00067. Galdera, garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloko ikuspegiari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 10-23/POR-00049. Galdera, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legeak arte eszeniko eta musikaletarako jasotzen duen zerga-arinketari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi transkribatzaile-postu betetzeko, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du. Izendapena (15. or.).
- Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila). Berraztertze-errekurtsoa (16. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 10-23/DFL-00001. 1/2023 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, aldatzen dituen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2022 Foru Legea, eta luzatzen dituen balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri (17. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-23/PRO-00002. Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko otsailaren 2an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2023ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/PRO-00002. Foru Lege proposamena, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2023ko otsailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2023ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea

aldatzeko Foru Lege proposamena presako prozedurari jarraikiz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat hasiko da, 2023ko 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-23/POR-00050. Galdera, estatu frantsesak mugako pasaguneak irekitzea lortze alderako neurriei buruzkoa.*JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera, estatu frantsesak mugako pasaguneak irekitzea lortze alderako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri proposatu ditu Nafarroako Gobernuak Frantziako estatuak mugako pasabideak ireki ditzan lortze aldera?

Iruñean, 2023ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

10-23/POR-00051. Galdera, erregimen frankistaren agintari eta kolaboratzaileei emandako omenaldi, aintzatespen eta kondekorazioen gainean egitear dagoen berrazterketari buruzkoa.*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, erregimen frankistaren agintari eta kolaboratzaileei emandako omenaldi, aintzatespen eta

kondekorazioen gainean egitear dagoen berrazterketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du 2023ko otsailaren 9ko Osoko Bilkurarako:

Parlamentuak honako erabaki-proposamen hau onetsi zuen: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ahalik eta lasterren eta erabakitazunez bultza dezan berriz azter-

tu daitezela –oraindik ere ez baita egin– Nafarroako erakundeek erregimen frankistari emandako babes edo laguntzaren ondorioz onura ekonomiko handiak –edo bestelakoak– lortu zituzten agintari eta pertsona guztiei egindako omenaldi, aintzatespen eta kondekorazio oro.

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak hura gauzatzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-23/POR-00052. Galdera, egunean joan-etorria egiteko Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus zerbitzuari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, egunean joan-etorria egiteko Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Duela hilabete batzuk, Nafarroako Gobernuari galdetu genion Cintruénigo, Fitero eta Corellako

udalerrietako herritarrei eragiten zieten (egun ere oraindik eragiten diete) hiriarteko garraioaren hutsuneen inguruan; izan ere, herri horietako herritarren beharrekin bateraezinak diren ordutegiak pairatzen dituzte, ezin dituztelako egin haien gestioak egunean berean.

Alhamaren ibarreko 22.800 biztanleek oraindik ez dute erantzunik jaso, eta haien mugikortasun-aukerak mugatzen dituzten ordutegiak eta maiztasunak pairatzen dituzte, bereziki Iruñera hitzordu mediko batera, ikastera edo lanera joaten direnek.

Departamentuak datorren martxotik aurrera begira aurreikusten duen irtenbideak herri horiek Iruñearekin lotzen dituen linea erregularra kentzea dakar, eta Tuteran autobus-aldaketa bat egin behar izatea.

Galdera: Zer konponbide ezarriko du Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak Fitero-Cintruénigo-Corella-Castejón-Iruña autobus-zerbitzu bat bermatzeko, egunean joan-etorria egiteko moduan eta behar besteko maiztasunekin?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-23/POR-00053. Galdera, Valle de Odieta SCLk Caparrosoko abeltegitzarrerako eskatu duen aldaketa funtsezkoari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Valle de Odieta SCLk Caparrosoko abeltegitzarrerako eskatu duen aldaketa funtsezkoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ahoz erantzun ditzan 2023ko otsailaren 9ko Osoko Bilkuran:

Valle De Odieta SCL eta Hibridación Termosolar SL merkataritza-enpresen titulartasuneko den Caparrosoko abeltegitzarrari emandako Ingurumen Baimen Integratuan –Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren bidez onetsia– baimena eman zen “esnetarako 7.200 behi heldu (6.500 inguru ekoizten eta 700 bat lehorte-aldian eta erditze-aurretiko aldian), eta ernaldiko azken hilabeteetan dauden bigantxen eta 40 egunera arteko aratxeen 600 buru” edukitzeko. Hau da, 7.620azienda larriko unitate (AzLU) inguru.

Ingurumen-baimen integratuan eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntean aldaketa funtsezko bat egiteko prozeduraren –Valle de Odieta SCL / Hibridación Termosolar Navarra SLk sustatua– iragarkia 2023ko 11. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 17koan, argitaratu zen. Aurkeztutako proiektuan adierazi zen hauxe litzatekeela instalazioan egonen zen abere-kopurua: “7.200 behi ugaltzaile, urte bat baino gu-

txiagoko 700 aratxe eta 600 bigantxa (7.900 AzLU)”. Ikus daitekeen bezala, kopuru hori nabarmen handiagoa da egun ustiategiak duen Ingurumen Baimen Integratuak baimendutakoarekin alderatuta.

Etorkizuneko egoerari dagokionez, proiektua onartuko balitz, honako abere-kopuru hau balioztatuko litzateke: “7.900 behi ugaltzaile, urte bat baino gutxiagoko 2.172 aratxe eta 1.300 bigantxa (9.678,80 AzLU)”. Proiektuak berak zenbatutakoarekin bat, horrek abeltzaintza-ustiategia “% 22,52” hedatzea dakar. Hala eta guztiz ere, sustatzaileak egin nahi duen handitzea eta gaur egun Ingurumen Baimen Integratuak baimentzen duen abere-kopurua alderatuz gero, aurreko paragrafoan aipatu den bezala, handitze hori % 27,01ekoa litzateke.

Behi-aziendak antolatze oinarritzko arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrak adierazten duenez, “izapidetze-fasean dauden ustiategien baimenari buruzko espedienteak, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, baina ekoizpen-prozesuarekin lotura zuzena duten instalazioak eraikitzen hasteko egin beharreko izapide guztiak beteta bazituzten 2022ko apirilaren 6a baino lehen –data horretan bukatu baitzen entzunaldi publikoko izapidea–, izapide horiek bete zirenean indarrean zegoen araudiaren arabera ebatziko dira”.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dut, ahoz erantzun dakidan:

Departamentuak uste al du, aplikatzekoa den oinarritzko legeria aintzat hartuta, AzLU-kopurua Caparrosoko abeltegitzarraren titularrek eskatzen duten modu horretan handitu daitekeela, hau da, “7.900 behi ugaltzaile, urte bat baino gutxiagoko 2.172 aratxe eta 1.300 bigantxa (9.678,80 AzLU) edukitzera igaro daitekeela?” Ukatu egingen al da eskatutako Ingurumen Baimen Integratuaren aldaketa funtsezkoa?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-23/POR-00054. Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren balizko handitze ilegalari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren balizko handitze ilegalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak otsailaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Duela gutxi Sustrai Erakuntza Fundazioak Caparrosoko abeltegitzarrari eta horren balizko handitze ilegalari buruz argitaratutako txostenaren berri izan dugu; hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari:

Caparrosoko abeltegitzarraren balizko handitze ilegalari buruz Sustrai Fundazioak egindako salaketaren konfirmazioa jaso al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

10-23/POR-00055. Galdera, Nafarroan gaixo onkologikoendako arreta jarraitua ez ezartzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan gaixo onkologikoendako arreta jarraitua ez ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez du ezarri Osasun Departamentuak gaixo onkologikoendako arreta jarraitua (duela urtebete Navarra Sumak proposatutako mozio batean aho batez onetsia) Nafarroan?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-23/POR-00056. Galdera, Nafarroako Gobernuaren gardentasun ezari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren gardentasun ezari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure gobernuaren gardentasun-ezaugarri bereizgarritzat jotzen al duzu Ganbera honetako talde parlamentario gehiengodunak justizia-uzitagetara jo behar izatea gobernuak eman nahi ez duen informazio jakin bat eskuratu ahal izateko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/POR-00057. Galdera, Nafarroako Gobernuak kontratu-euskarri indardunik gabe egiten duen gastu gero eta handiagoa zuzentzeko neurriei buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak kontratu-euskarri indardunik gabe egiten duen gastu gero eta handiagoa zuzentzeko neurriei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu behar dituzu, Kontuen Ganberak hauteman duenarekin bat, Nafarroako Gobernuak kontratu-euskarri indardunik gabe egindako gastu gero eta handiagoa zuzentzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

10-23/POR-00058. Galdera, ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeekiko hezkuntza ituna kentzeko erabakiak familiei eragiten dien arazoari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeekiko hezkuntza ituna kentzeko erabakiak familiei eragiten dien arazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak nola konponduko du ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeekiko hezkuntza ituna kentzeko erabakiak familiei eragiten dien arazoa?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Pedro José González Felipe

10-23/POR-00059. Galdera, osasunaren egoeraren eta deitutako greben gaineko balorazioari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, osasunaren egoeraren eta deitutako greben gaineko balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu osasunaren eta deitutako greben egoeraren inguruan?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

10-23/POR-00060. Galdera, EH Bilduren botoei buruzkoa.*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak EH Bilduren botoei buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten

du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berriki, 25 urte bete dira Sevillako zinegotzi Antonio Jiménez Becerril eta haren emazte Ascensión Garcíaen eraiketa zital eta arbuigarrria gertatu zenetik. Eta, halaber, 25 urte bete dira haien hiltzaileak Nafarroako parlamentariaren aktaren jabetza hartu zuenetik. Ekintza hori gure erakundeari egindako irain nardagarria izan zen. EHk, egun EH Bildu denak, proposatu, lagundu eta omendu zuen. Eta 25 urte geroago, EH Bilduk oraindik ere ez du eskatzen horrelako hiltzaileak epaituak eta zigortuak izan daitezela, aitzitik, haien askatasuna eskatzen du. Horregatik guztia-gatik,

Lehendakaria oraindik ere prest al dago EH Bilduren botoak onartzeko Nafarroako Gobernuako lehendakari izaten jarraitzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

10-23/POR-00061. Galdera, Espainiako Gobernuak bere finantziariopearen baitan diren Nafarroako azpiegitura publikoekiko duen konpromisoari buruzkoa.*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuak bere finantziariopearen baitan diren Nafarroako azpiegitura publikoekiko duen konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer konpromiso du Espainiako Gobernuak bere finantziariopearen baitan diren Nafarroako azpiegitura publikoekiko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

10-23/POR-00062. Galdera, Tuterako Hemodialisi Unitatea laster abiarazteak arretari ekarriko dion hobekuntzari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Hemodialisi Unitatea laster abiarazteak arretari ekarriko dion hobekuntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak 2023ko otsailaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Giltzurruneko gaixotasun kronikoa duten eta hemodialisia behar duten Erriberako pazienteek Iruñera joan behar izaten zuten, Tuterako Reina Sofía Ospitalean ez baitago behar beste plaza zerbitzu horretan.

Tuterako Hemodialisi Unitatea laster abiaraziko dela kontuan hartuta, nola hobetuko da arreta?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

10-23/POR-00063. Galdera, Agoitzen Flamasats enpresa ezartzeari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Agoitzen Flamasats enpresa ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak otsailaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin ostean Flamasats enpresa katalanak Siemens Gamesa enpresaren Agoizko fabrika zaharraren lursailak erosiko dituela –2020ko udan itxi zen hura–, eta 250 bat lanpostu sortuko dituela iragarri duenez, honako galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari:

Zer balorazio egiten du Flamasats enpresa Agoitzen ezartzeari buruz?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-23/POR-00064. Galdera, Osasunbidearen krisiari eta herritarrendako arreta eta profesionalen lan-baldintzak hobetzeari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Osasunbidearen krisiari eta herritarrendako arreta eta profesionalen lan-baldintzak hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gober-

nuko lehendakari María Chivite Navascués andreak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasunbidean bizi den egoera kezkarria da. Grebarako deialdiak daude profesionalen aldetik, zeinek azaleratzen duten ondoeza nagusi dela plantillan eta konpondu gabeko arazo ugari direla jendeak arreta jasotzerakoan, orain arte ez baitaie heldu eraginkortasunez eta behar den zorrotasunez.

Legegintzaldia amaitzean dagoenez, Nafarroako Gobernuak egoera horri heldu behar dio solaskide guztiei entzun eta haiekin hitz eginez, bide-orri argi batekin, proposamen kuantifikatuekin eta haiek burutzeko arau-tresnak edukita.

Nafarroako Gobernuak nola helduko dio Osasunbidearen krisiari eta zein bide-orri dauka herritarrendako arreta eta profesionalen lan-baldintzak hobetzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

10-23/POR-00065. Galdera, nekazaritza-sektorearentzako laguntza-lerroei buruzkoa, energiaren zein lehengaien kostu igoerak sorturiko eragin ekonomikoa murrizte aldera.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, nekazaritza-sektorearentzako laguntza-lerroei

buruzkoa, energiaren zein lehengaien kostu igoerak sorturiko eragin ekonomikoa murrizte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak otsailaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nekazaritza-sektoreak energiaren zein lehen-gaiari kostu igoeratik pairatzen duen egoeraren aurrean, laguntzarako zer lerro ezarri ditu administrazioak haien eragin ekonomikoa murrizte aldera?

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

10-23/POR-00066. Galdera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreforma- rako 4/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako 4/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakari María Chivite

andreak heldu den Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea ez da garatu bere alderdi funtsezkoenetan, horretarako ezarritako epeak urratuta.

Arauaren xedea da tokiko esparruan kudeaketa eraginkorragoa eta efizienteagoa sustatzea. Ildo horretan, tokiko mapa berri bat ezartzen du, arrazionalagoa, zeinak antolatzen duen herritar guztiei, zein den ere haien bizilekua, kalitatezko zerbitzuak ematea eta haiek finantzatzea.

Kontuen Ganberak lege hori garatzea eskatu du, tokiko sektorearen "kudeaketa eraginkorragoa" lortze aldera.

Legegintzaldia amaitzeko zorian dago eta Gobernuak ez du lege hor ez indargabetu ez bete.

Zer jarduketa aurreikusten du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako 4/2019 Foru Legea garatzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-23/POR-00067. Galdera, garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloko ikuspegiari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, garapen ekonomiko eta enpresarialaren arloko ikuspegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2023ko otsailaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Garapen ekonomiko eta enpresarialaren alde-tik zer ikuspegi du Nafarroako Gobernuak etorkizunari begira?

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

10-23/POR-00049. Galdera, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legeak arte eszeniko eta musikaletarako jasotzen duen zerga-arinketari buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legeak arte eszeniko eta musikaletarako jasotzen

duen zerga-arinketari buruzkoa. Galdera 2023ko urtarrilaren 31ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi transkribatzaile-postu betetzekoa, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du.

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da 2022ko maiatzaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2022ko maiatzaren 18ko 96. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko oposizio-lehiaketa, zeina Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi transkribatzaile-postu –funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak– betetzekoa baitzen. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna zuen (PER20220016).

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2023ko urtarrilaren 9an hartutako erabakiaren bidez onetsi zuen Fernando Mauleón de Antonio jaunaren eta Nerea Martín Cestao andrearen (euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna) alde epaimahai kalifikatzaileak egindako izendapen-proposamena, zeina 2023ko urtarrilaren 12ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2023ko urtarrilaren 12ko 8. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena egin du interesdunek deialdiko 8.3 oinarrian adierazita

dagoen dokumentazio guztia behar den epean eta moduan aurkeztu izanari buruz. Hartara, txosten hori ikusita eta deialdiko 9. oinarrian ezarritakoa-rekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, Transkribatzaileen Kidegoko transkribatzaile gisa, honako izangai hau:

Fernando Mauleón de Antonio jauna.

2. Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, Transkribatzaileen Kidegoko euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna duen transkribatzaile gisa, honako izangai hau:

Nerea Martín Cestao andrea.

3. Ezartzea interesdunek hilabeteko epea izanen dutela, izendapena jakinarazten zaienetik aitzina, beren karguaren jabetza hartzeko.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila).

Berraztertze-errekurtsoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2023ko urtarrilaren 31n, Parlamentuaren Erregistroan aukerako berraztertze-errekurtso bat aurkeztu da 2022ko abenduaren 12ko Mahaiko erabakia dela-eta, honako deialdi honi dagokionez: merezimenduen lehiaketa bitartez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikari lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizial lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain lanpostu huts bat (D maila) betetzeko enplegu-egonkortze deialdi salbuespenezkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1.- Aukerako berraztertze-errekurtso horren berri izan duela adieraztea (PER20230006).

2.- Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin kasuko iragarpena.

Iruñean, 2023ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

BERRAZTERTZE ERREKURTSOA, merezimenduen lehiaketa bitartez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikari lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizial lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain lanpostu huts bat (D maila) betetzeko enplegu-egonkortze deialdi salbuespenezkoari buruzkoa

Enplegu publikoaren alorrean behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan, merezimenduen lehiaketa bitartez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikari lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizial lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain lanpostu huts bat (D maila) betetzeko enplegu-egonkortze deialdi salbuespenezkoan, zeina Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2022ko abenduaren 12ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onetsi baitzuen (259. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2022ko abenduaren 27koa).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118. eta 45. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, interesdun guztiei jakinarazten zaie, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita gehienez ere hamar egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, zeinak Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko baitira, Iruñeko Navas de Tolosa kaleko 1. zenbakian, edo beste erregistro batzuetan, indarreko administrazio-araudiari jarraikiz.

Jarritako errekurtsoaren kopia bat lortzeko, interesdunek Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorraren helbide elektronikoaren bidez (registro@parlamentodenavarra.es) eskatzen ahalko dute bidal dakien aurkeztutako berraztertze errekurtsoa; eta, horretarako, helbide elektroniko bat adierazi beharko dute beren eskabidean, horra bidaliko baitzaie errekurtsoa.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-23/DFL-00001. 1/2023 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, aldatzen dituen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2022 Foru Legea, eta luzatzen dituen balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak ziurtagiri bat igorri du, tributu harmonizazioari buruzko urtarrilaren 25eko 1/2023 Legegintzako Foru Dekretuarena, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2022 Foru Legea, eta luzatzen baitira balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea tributu harmonizazioari buruzko urtarrilaren 25eko 1/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela. Dekretu honen bidez aldatzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2022 Foru Legea, eta luzatzen dira balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1/2023 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, aldatzen dituen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea eta Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2022 Foru Legea, eta luzatzen dituen balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horretan, Itun Ekonomikoaren 31 bis, 32., 35.5 eta 40 bis artikuluek xedatzen dute energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga (aurrerantzean, EEEBZ), balio erantsiaren gaineko zerga (aurrerantzean, BEZ), zerga bere-

ziak eta Finantza-transakzioen gaineko zerga (aurrerantzean, FTZ) ordainaraztean Nafarroak aplikatuko dituela Estatuko lurraldean une bakoitzean indarra duten oinarritzko printzipio eta arau substantibo eta formal berak.

Horren ondorioz, Nafarroak bere tributu-araubidea aldatu behar du zerga horien arau substantibo eta formalei eragiten dien tributu-araubide erkidearen erreformaren bat dagoenean. Helburu horrekin, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 53.1 artikulua ezartzen du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eskuordetuta, tributu buruzko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak ematen ahalko dituela. Aipatu legegintza eskuordetua erabiliz, Nafarroako Gobernuak onesten dituen xedapen horiei tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretuaren izena emanen zaie.

Estatuan, Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea aldatzen duen abenduaren 19ko 26/2022 Legea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzen du bigarren artikuluan, zehaztapen terminologiko bat gehitzeko zerga horri lotuta ez dauden eragiketen araubidean, 2022ko abenduaren 21etik aurrerako ondorioekin.

Era berean, Estatuko 2023ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak tributu arloko aldaketa batzuk gehitu ditu balio erantsiaren gaineko zergari eta zerga bereziei dagokienez.

Bestalde, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-dekretuak, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartearen berreraikuntzari laguntzeko eta beste zaurgarritasun egoera batzuetarako neurri buruzkoak, besteak beste, neurri fiskalak hartzen ditu energiaren arloan eta jarduera bultzatzearen eta egonkortasun ekonomiko eta sozialari eustearen arloan; neurri horiek BEZari eta EEEBZari eragiten diete.

BEZarekin lotuta, Estatuko 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak zenbait aldaketa egiten ditu.

Lehenengo eta behin, barne ordenamenduan xertatzen dira Kontseiluaren 2019ko abenduaren 16ko 2019/2235 (EB) Zuzentaraua, Balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzko 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen duena, eta 2008/118/EE Zuzentaraua, Zerga berezien araubide orokorrari buruzkoa, defentsa ahaleginari dagokionez Batasunaren esparruan, eta salbuespenen araubide bat ezartzen da, Ipar Atlantikoko

Tratatuaren parte den edozein estatutatako indar armatuentzat aurreikusia zegoenaren antzekoa. Salbuespenen araubide hori zabaltzen da segurtasun eta defentsa arloko politika erkidearen esparruan egiten diren jardueretan parte hartzen duten estatu kideen indar armatuetara. Horrela, deklaritzen da salbuetsirik daudela indar armatu horiek Batasunaren barruan egindako ondasun entregak, inportazioak eta eskurapenak, indar horien edo haien zerbitzuko langile zibilen erabilerrako eta haien jantoki edo kantinen hornidurarako.

Bestalde, genero ikuspegia nabarmentzeko xedeaz, ehuneko 4ko zerga-tasa murriztua ezartzen zaie tanpoi, konpresa eta slip-babesei, emakumeentzat behar-beharrezkoak diren produktuak direlako, bai eta preserbatiboak eta sendagaiak ez diren beste antisorgailu batzuei ere. Aldaketa hori egiten da bat etorritik Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauan, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoan, zerga-tasen arloan ezarritako muga berriekin.

Halaber, operadoreen segurtasun juridikoa eta zerga administrazioaren jarduketaren bermeak indartzeko, BEZaren araudia eguneratzen da haren edukia Batasuneko aduana-araudiarekin harmonizatzeko eta hartara egokitzeko.

Subjektu pasiboaren inbertsio mekanismoaren erregulazioan ere aldaketak egiten dira, haren aplikazioa zabaltzen baita plastiko eta oihal hondakin eta hondarren entregetara, eta aldatzen dira subjektu pasiboari dagozkion erregelak, subjektu pasiboaren inbertsio erregela aplika dadin hondakin horien eta berreskurapeneko materialen entregetan.

Aurrekoa gorabehera, subjektu pasiboaren inbertsio erregelaren aplikaziotik kanpo uzten dira higiezin errentamendu zerbitzuen prestazioak, zergari lotuak eta salbuetsi gabeak, zerga aplikatzen den lurraldean establezimendurik ez duten pertsona edo entitateek egiten dituztenean. Horrela, erraztu egiten da ezarritako kenkari eta itzulketa araubide orokorrak baliatzea, zenbait inguruabar tartetan direlarik baztertuta zeudelako establezimendurik ez dutenentzako itzulketa araubidetik. Horrela, zergaren neutraltasuna bermatzen da eta itzulketa lortzeko zama administratiboa arintzen dira.

Horrez gain, saiheste fiskaleko egoerak ekiditeko, erregela horren aplikaziotik salbuesten dira, halaber, bitartekaritza zerbitzuen prestazioak higiezin errentamendurako, zerbitzu horiek establezimendurik ez duten enpresaburu edo profesionalek ematen dituztenean. Berezi, errenta-

tzaileak BEZetik salbuetsitako errentamendu zerbitzuak ematen dituenean, bermatzen da bitartekaritza zerbitzuei dagokien zergaren bilketa eta murrizten dira errentatzaile horiek BEZaren aitortpenak eta sarrerak berekin dakartzaten zama administratiboak errentatzaileentzat, ez baitute, oro har, zergaren aitortpen-likidaziorik aurkeztu behar.

Azkenik, Batasuneko ordenamendura hobeki egokitzeko, kreditu kobraezinetatik sortutako BEZa subjektu pasiboak berreskuratzeko prozedura eta arauaren alderdi batzuk aldatzen dira. Zehazki, Batasuneko beste estatu bateko organo jurisdikzionalak deklaraturako kaudimengabezia prozesu baten ondorioz kobraezinak diren kredituen kasuan, zerga-oinarria aldatzeko aukera ematen duen doktrina administratiboa gehitzen da.

Beste alde batetik, kreditu kobraezinei dagokienez, hauek dira aldaketak: eragiketaren zerga-oinarriaren gutxieneko zenbatekoa murrizten da hartzaile berankorra azken kontsumitzaile denean; prozedura malgutzen da, zordunari erreklamazio judiziala edo alde aurreko errekerimendu notariala egin ordez zordunari kobrantzaren erreklamazioa egin zaiola modu fede-emailean frogatzen duen beste edozein bide erabiltzeko aukera gehituta; eta 6 hilabetera luzatzen da BEZa berreskuratzeko epea, kreditua kobraezin deklaratu denetik. Azken neurri horrekin batera araubide iragankor bat ezartzen da, 6 hilabeteko epe berriaz baliatu daitezkeen BEZaren subjektu pasibo guztiak, haien aldaketa epea 2023ko urtarrilaren 1ean iraungi ez bada.

Kontseiluaren 2019ko abenduaren 16ko 2019/2235 (EB) Zuzentarauak berritasunak ekarri ditu zerga berezien arloan ere, behar bezala txertatu direnak Estatuko 2023ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen bitartez.

Zehazki, fabrikazioaren gaineko zerga berezien arloan, fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede diren produktuen fabrikazioa eta inportazioa salbuetsirik egonen dira, produktu horiek Batasuneko edozein estatutako –Espainia ez dena– indar armatuentzat badira, indar horiek edo haien zerbitzuko langile zibilek erabiltzeko edo haien jangelak edo kantinak hornitzeko, indar horiek atxikita baldin badaude segurtasun eta defentsa politika erki-dearen esparruan Batasunaren jardura bat betetzeko defentsa ahalegin bati.

Beste gai batzuetara pasatuta, 2022an Espainian Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteko onetsitako salbuespenezko neurriei jarraipena emateko, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-dekretuak luzatzen du, 2023ko abenduaren 31ra arte, gas naturalaren entregetako fakturaren osagai guztien gaineko BEZaren zerga-tasa ehuneko 5era murrizteko neurria, bai eta berokuntza sistemetan erregai gisa erabiltzen diren eta biomasatik datozen briketa edo pelleten eta egurraren entregetakoa ere.

Orobat, 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzen du BEZaren ehuneko 5eko zerga-tasaren aplikazioa energia elektrikoaren zerbitzu horniduratan.

Azkenik, 2023ko ekainaren 30era arte luzatzen du BEZaren ehuneko 4ko zerga-tasaren aplikazioa erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen entrega, inportazio eta eskurapenetan, Batasunaren barrukoetan, eta BEZaren ehuneko 0ko zerga-tasaren aplikazioa SARS-CoV-2aren txertoetan eta proba diagnostikoetan.

Halaber, BEZaren zerga-tasa ehuneko 4tik Ora jaisten du oinarrizko elikagaietarako, zeinek orain arte tasa murriztua baitzuten, bai eta olioetarako eta jateko pastetarako ere, ehuneko 10etik 5era jaisten baita, oinarrizko elikagai horien amaierako prezioa jaisten laguntzeko. Bi murrizketak aldi baterako eta aparteko izaeraz ezartzen dira, 2023ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era, azpiko inflazioaren urte arteko tasaren bilakaeraren menpe betiere.

Eragiketa horiei dagokien baliokidetasun-errekarguaren tasa ere murrizten da horrekin lotuta, indarrean dagoen eta aplikatzen den bitartean.

Aurrekoen osagarri, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-dekretuak 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzen du EEEBZaren aldi baterako etetea.

Bukatzeko, FTZaren kasuan, Estatuko araudian zenbait salbuespeni dagokienez xedatutako arekin harmonizatzen da.

Horregatik, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu hau eman behar da, BEZari, zerga berezietan, EEEBZari eta FTZari dagokienez Foru Komunitatean aplika daitezkeen estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2023ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Lehenengo artikulua. Balio erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

Bat. 7.8.F)d') artikulua, ondorioak 2022ko abenduaren 21etik aurrera izateko.

“d’) Portu eta aireportuetako zerbitzuak eta trenbideetako azpiegituren administrazio zerbitzuak, ondorio horietarako kontuan hartuta, halaber, hurrengo 9. zenbakian zergari lotuta ez egoetik salbuetsirik dauden emakidak eta baimenak”.

Bi. 16.3 artikulua, ondorioak 2022ko uztailaren 1etik aurrera izateko.

“3. Honako hauek egindako atxikipena:

a) Ipar Atlantikoko Tratatuen parte den estatu bateko indarrek, zerga aplikatzen den lurraldean, beren erabilerarako edo lagun duten elementu zibilaren erabilerarako, edo

b) Batasuneko edozein estatutako indar armatuek, beren erabilerarako edo beren zerbitzuan dituzten langile zibilen erabilerarako, baldin eta indar horiek atxikita badaude segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan Batasunaren jarduera bat betetzeko defentsa ahalegin bati, indar horiek edo haien elementu zibilak Erkidegoan zergaren tributaziorako dauden baldintza normaletan eskuratu ez dituzten ondasunen atxikipena, edo horien inportazioari ezin zaionean aplikatu zergaren salbuespena, Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 62. artikuluan ezarritakoa”.

Hiru. 18. artikulua, 3. zenbakia aldatzea eta 7. zenbakia gehitzea, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“3. Lanak diren zerbitzu prestazioak, zerga aplikatzen den lurraldean lan horiek egiteko eskuratu edo inportatu diren ondasun higigarrietan egiten direnak, ondasun horiek, ondoren, erkidegotik kanpora bidali edo eramaten baditu pertsona hauetako batek: lan horiek egin dituenak; zerga aplikatzen den lurraldean establezimendurik ez duen ondasunen hartzaileak; aurrekoen beste pertsona batek, aduana arloko araudian xedatutakoaren arabera esportatzailea bada; edo beste pertsona batek, aurreko edozeinen izenean eta haren kontura jarduten duenak.

Salbuespenak ez ditu hartzen kirolerako edo aisialdirako ontzien, turismoko hegazkinen edo erabilera pribatuko beste edozein garraibideren

konponketa edo mantentze lanak, horiek igarotze araubidean edo aldi baterako inportazioko araubidean sartu badira”.

“7. Aduana arloko araudian xedatutakoaren arabera esportatzailea den norbaitek, ez bada zerga aplikatzen den lurraldeko establezimendurik gabeko eskualdatzailea edo eskuratzailea, edo haren izenean eta kontura jarduten duen beste batek erkidegotik kanpora bidali edo eramaten dituen ondasunen entregak”.

Lau. 19. artikulua, 10. eta 11. zenbakiak aldatzea, ondorioak 2022ko uztailaren 1etik aurrera izateko, eta 7. zenbakia aldatzea eta 16. zenbakia gehitzea, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“7. Zerbitzu prestazioak, artikulua honetako aurreko zenbakietan jasota ez daudenak, 1. eta 4. zenbakietan ezarritako salbuespenak aplikatzen zaizkien itsasontzi eta aireontzien zuzeneko premiei edo itsasontzi eta hegazkin horien zamaren premiei erantzuteko egiten direnak.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren zerbitzuen hartzaileek izan beharko dute itsasontzi horien ustiapenaren titularrak edo aireontziak erabiltzen dituzten enpresak edo erakunde publikoak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren salbuespen gisa, salbuetsirik egonen dira zamalanak, estibatze eta desestibatze lanak eta ontzi-aldaketak egiteko zerbitzuak, 1. zenbakian jasotako itsasontzien zamaren premiekin lotutakoak, estibatzaile profesionalak egindakoak, beren izenean, estibatze enpresentzat, eta enpresa horiek erabilitakoak itsasontzi horien ustiapenaren titularreri emandako zerbitzuetan”.

“10. Hauentzat egindako ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak:

a) Ipar Atlantikoko Tratatuen parte diren gainerako estatuen indarrentzat, Tratatuen parte diren estatuek beren indarren estatuari buruzko hitzarmenean ezarritako baldintzetan;

b) Batasuneko edozein estatutako –Espainia ez dena– indar armatuentzat, indar horiek edo haien zerbitzuko langile zibilek erabiltzeko edo haien jangelak edo kantinak hornitzeko, indar horiek atxikita baldin badaude segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan Batasunaren jarduera bat betetzeko defentsa ahalegin bati.

11. Batasuneko beste estatu batentzat egindako ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak, bai eta hauentzat ere:

a) Ipar Atlantikoko Tratatuen parte den edozein estatuen –destinoko estatu bera ez dena–

indarrentzat, Tratatuaren parte diren estatuek beren indarren estatutuari buruzko hitzarmenean ezarritako baldintzetan;

b) Batasuneko edozein estatutako –destinoko estatu bera ez dena– indar armatuentzat, indar horiek edo haien zerbitzuko langile zibilek erabiltzeko edo haien jangelak edo kintinak hornitzeko, indar horiek atxikita baldin badaude segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan Batasunaren jarduera bat betetzeko defentsa ahalegin bati”.

“16. Aurreko zenbakietan xedatutakoaren aplikazioaren ondorioz salbuetsirik dauden eragiketetan ez daude sartuta 17., 17 bis, 18. eta 22. artikuluen ondorioz salbuetsirik daudenak”.

Bost. 20. artikulua, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“20. artikulua. Aldi baterako gordailu egoerei eta beste egoera batzuei dagozkien salbuespenak.

1. Eragiketa hauek salbuetsirik egonen dira, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta betebeharrekin:

a) Aldi baterako gordailu egoeran dauden ondasunen entregak, bai eta zerbitzuen prestazioak ere, aurreko ondasun entregekin zuzeneko lotura dutenak eta ondasunak egoera horretan dauden bitartean egiten direnak.

b) Lurralde-itsasora eramaten diren ondasunen entregak, zulaketa edo ustiaketa plataformetan txertatzeko, horien eraikuntza, konponketa, mantentze edo birmoldatze lanetarako, ekipamendurako edo plataforma horiek kontinentearekin lotzeko.

Salbuespenak aurreko paragrafoan aipatzen diren plataformak hornitzeko ondasunen entregak ere hartzen ditu.

c) b) letran deskribatutako ondasun entregekin zuzenean lotutako zerbitzu prestazioak, bai eta zenbaki horretan jasotzen diren egoeretan jartzeko xedea duten ondasunen inportazioak ere.

d) b) letran adierazitako egoeran dauden ondasunen entregak, bai eta ondasunak egoera horretan dauden bitartean egiten diren zerbitzu prestazioak ere.

2. Aldi baterako gordailu egoerak, bai eta artikulua honetan aipatzen diren ondasunak aldi baterako gordailu egoeran jartzeak ere, aduanaren arloko legerian ezarritako definizio, arau eta betebeharrak beteko dituzte.

3. Artikulu honetan ezarritako salbuespenak aplikatzeko, aipatzen diren ondasunak ez dira erabiliko, ez eta baliatuko ere, aipatutako egoeretan azken kontsumoa egiteko.

4. 1. zenbakiaren arabera salbuetsirik dauden zerbitzu prestazioetan ez dira sartuta egonen 17., 18. eta 19. artikuluen arabera salbuespena dutenak”.

Sei. 21. artikulua, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“21. artikulua. Aduana eta zerga araubideei dagozkien salbuespenak.

1. Eragiketa hauek zergatik salbuetsirik egonen dira, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta betebeharrekin:

a) Ondasun hauen entregak:

1. Zona frankoko araubideari lotu beharrekoak eta araubide horri loturik daudenak.

2. Hobekuntza aktiboko aduana eta zerga araubidearen babesean egindako prozesuetan erabili beharrekoak, bai eta araubide horiei loturik daudenak ere, hobekuntza aktiboko esportazio aurreratuaren modalitatea salbu.

3. Aldi baterako inportazio araubideari loturik daudenak, inportazioaren edo kanpo-igarotzearen gaineko eskubideak erabat salbuetsirik.

4. Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 18.Bat.2 artikuluan jasotakoak, aldi baterako inportazioaren araubide fiskalaren edo barne igarotzearen araubidearen babesean daudenak.

5. Aduana gordailuko araubideari lotu beharrekoak eta araubide horri loturik daudenak.

6. Aduanako ez den gordailu bateko araubideari lotu beharrekoak eta araubide horri loturik daudenak.

b) a) letran deskribatutako entregekin zuzeneko lotura duten zerbitzu prestazioak.

c) Eragiketa eta ondasun hauekin zuzeneko lotura duten zerbitzu prestazioak:

1. Zona frankoko araubideari lotzen zaizkion ondasunen inportazioak.

2. Kanpo-igarotzearen araubideari lotzen zaizkion ondasunen inportazioak.

3. Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 18.Bat.2 artikuluan jasotako ondasunen inportazioak, aldi baterako inportazioaren araubide fiskalaren edo barne

igarotzearen araubidearen babesean jartzen direnak.

4. Hobekuntza aktiboko aduana eta zerga araubideei lotzen zaizkien ondasunen inportazioak.

5. Aduana gordailuaren araubideari lotzen zaizkien ondasunen inportazioak.

6. Aldi baterako inportazioaren araubideari lotzen zaizkien ondasunen inportazioak, erabat salbuetsirik egonda.

7. Aduanakoa ez den gordailu araubide bati lotzen zaizkien ondasun inportazioak, Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 65. artikulua araberaz salbuetsirik daudenak.

8. 1., 2., 3., 4., 5. eta 7. ordinaletan deskribatutako araubideei lotutako ondasunak.

2. 1. zenbakian aipatzen diren araubideak aduana arloko legerian definitutakoak dira, eta horiei lotzeko eta horietan mantentzeko, legeria horretan ezarritako arau eta betebeharrak bete beharko dira.

Hobekuntza aktiboko araubide fiskala baimenduko da izen bereko aduana araubidetik kanpo gelditzen diren ondasunetarako, eta, gainerako guztian, aduana araubide horren gaineko arau berak bete beharko dira.

Aldi baterako inportazioaren araubide fiskala baimenduko da Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 3.Bi.1.b) artikuluan jasota dauden lurraldeetatik datozen ondasunetarako, horien aldi baterako inportazioa erabat salbuetsirik baldin badago inportazio eskubideetatik edo ondasunak beste herrialde batzuetatik etorriz gero salbuespen hori izanen balu.

Foru lege honen ondorioetarako, aduanakoez bestelako gordailu araubidea eranskinaren bosgarren atalean definitutakoa izanen da.

3. 1. zenbakian deskribatutako salbuespenak aplikatuko dira ondasunak aipatutako araubideei loturik dauden bitartean.

4. Aduana eta zerga araubideei dagozkien salbuespenak aplikatzeko, betiere, kasuan kasuko ondasunak ez dira erabili beharko ez eta baliatu ere azken kontsumoa araubideen indarraldian egiteko, horrek ukatu gabe hobekuntza aktiboko aduana eta zerga araubideen babesean egiten diren eraldaketa prozesuetan sartutako ondasunak.

5. 1. zenbakiaren aplikazioaren ondorioz salbuetsirik dauden zerbitzu prestazioetan ez dira sartuko 17. artikulua ondorioz salbuetsirik daudenak”.

Zazpi. 28. artikulua 4. zenbakiko A) letra, 3. eta 4. baldintzak, eta B) letra; eta 5. zenbakia, 2. erregela, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“3. Eragiketaren hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa jardutea, edo, bestela, eragiketaren zerga-oinarria, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta, 50 eurotik gorakoa izatea.

4. Subjektu pasiboak kobratzea eskatu izana zordunari erreklamazio judiziala eginez edo errekerimendu notarialaren bidez, edo kobrantzaren erreklamazioa egin zaiola modu fede-emailean frogatzen duen beste edozein bitarteko erabiliz, ente publikoek indartutako kredituak direnean ere.

Lehen baldintzan aipatutako epeko eragiketen kasuan, nahikoa izanen da horietako baten kobrantza eskatu izana, laugarren baldintzan aipatzen diren bitartekotako edozein erabiliz, zerga-oinarria aldatzeko ordaindu gabeko epeari edo epeei dagokien proportzioan.

Ente publikoek zor dituzten kredituak direnean, 4. baldintzan aipatzen diren bitartekoen ordez, ente publiko zorduneko organo eskudunak emandako ziurtagiri bat erabiliko da, bertako kontu-hartzaileak edo diruzainak zordunaren betebeharra eta zenbatekoa aitortzeko egiten duen txostenarekin bat.

B) Aldaketa sei hilabeteko epean egin beharko da, 1. baldintzan aipatu sei hilabeteko edo urtebeteko epea bukatzen denetik, eta horrez gainera, zerga administrazioari jakinarazi beharko zaio erregelamenduz ezartzen den epean.

Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketen kasuan, aldaketa egiteko sei hilabeteko epea foru lege honen 108 terdecies artikuluan aipatzen den abenduaren 31ko mugaegunetik hasiko da kontatzen”.

“2. Eragiketen hartzailea zerga aplikatzen den lurraldean kokatua ez badago, ezta Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan ere, ez da bidezkoa izanen zerga-oinarria aldatzea.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo daude Batasunaren beste estatu bateko organo juridikozional batek deklaraturako kaudimengabezia-prozesu baten ondorioz kobraezinak diren kredituen kasuak, kaudimengabezia prozedura horiei aplikatu behar bazaie Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko

2015/848 (EB) Erregelamendua, kaudimengabezia prozedurei buruzkoa, halakoetan subjektu pasiboaren zerga-oinarria aldatzen ahalko baita foru lege honen 28.3 artikuluan aurreikusitako baldintzetan”.

Zortzi. 31.1.2 artikulua, a) letra, c') letra aldatzea eta d') eta e') letrak gehitzea; eta c) letra, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“c') 17 bis artikuluan, 18.ean, 1., 2. eta 7. ordinaletan edo 22.ean aurreikusitakoa aplikatzearen ondorioz zergatik salbuetsirik dauden ondasun entregak direnean, bai eta azken artikulua horretan jasotako ondasun entregak direnean ere, zergarik lotuak eta salbuetsi gabeak.

d') Ondasun higiezinaren errentamendurako zerbitzu prestazioak direnean, zergari lotuak eta salbuetsi gabeak.

e') Ondasun higiezinaren errentamenduan bitartekaritza egiteko zerbitzu prestazioak direnean”.

“c) Kasu hauetan:

1. Industriako hondakin berrien entregak, galdaketako hondarren eta hondakinenak, metal ferrikoek eta ez ferrikoek osatutako hondarren eta berreskuratu beharreko gainerako materialenak, haien aleazioen, zepen, errautsen eta metalak edo haien aleazioak dituzten industriako hondakinenak.

2. Aurreko marratxoan aipatu diren produktuak aukeratzeko, ebakitzeko, zatikatze eta prentsatze eragiketarako.

3. Plastikoko hondarren, hondakinen edo ebakinen entregak.

4. Paper, kartoi edo beira hondarren edo hondakinen entregak.

5. Trapu, listari, soka edo sareen hondakinen edo artikulua erabilezinen entregak.

6. Lehen marratxoan aipatzen diren metal ez ferrikoak eraldatu, landu edo galdatzearen emaitza diren produktu erdilanduen entregak, kenduta nikelaz konposatutakoenak. Bereziki, produktu erdilandutzat joko dira lingoteak, blokeak, plakak, barrak, alea, granaila eta alanbre-burdina.

Nolanahi ere, foru lege honen eranskinean zehaztu diren materialen entregak aurreko ordinaletan sartuta daudela ulertuko da”.

Bederatzi. 37. artikulua, Bat.1.6.b) apartatua kentzea eta bi.1 apartatua 7. ordinala gehitzea, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“7. Konpresak, tanpoiak, slip-babesak, preserbatiboak eta sendagaiak ez diren beste antisorgailu batzuk”.

Hamar. 112.3. artikulua, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“3. Ondasunen inportazioetan, aduanaren arloko legerian muga-zergetako eskubideetarako aurreikusitako moduan likidatuko da zerga, edo, hala badagokio, Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 167 bis artikuluan aurreikusi bezala.

Erregelamenduz ezarriko den moduan egiten da inportazioaren gaineko zergaren kuoten bilketa eta sarrera, eta han ezartzen ahalko da zer baldintza eskatu subjektu pasiboari, administrazioak egindako likidazioa jasotzen duen dokumentua hartzen duten epealdiari dagokion aitorpen-likidazioaren kuotak sar ditzaten.

Halere, aduanako aitorpena Batasunaren beste estatu batean aurkezten denean bat etorritik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduan, Batasunaren aduana-kodea ezartzen duenean, 179. artikuluan, aurreikusitakoarekin, Administrazioa, zergaren likidazioa egiteko, aitorpena aurkeztu den estatu kidearen aduanak emandako informazioan oinarrituko da”.

Hamaika. Zortzigarren xedapen iragankorra, gehitzea, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“Zortzigarren xedapen iragankorra. Balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-oinarria aldatzeko epea, kreditu kobraezinengatik.

Osorik nahiz zati batean kobraezinak diren kredituen zerga-oinarria aldatzen denean, 2023ko urtarrilaren 1ean ez bada bukatu hiru hilabeteko epea, Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 28.4.A) artikuluko 1. baldintzak aipatzen duen sei hilabeteko edo urtebeteko epea bukatu denetik, 4. zenbaki horretako B) letran aipatzen den epea, zerga-oinarria aldatzeko, sei hilabetekoa izanen da aipatutako sei hilabeteko edo urtebeteko epea bukatzen denetik hasita.

Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzeko den eragiketetan, 6 hilabete edukiko dira zerga-oinarriaren aldaketa egiteko, aipatutako abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 108

terdecies artikuluan aipatzen den muga-datatik aurrera –abenduaren 31–”.

Hamabi. Eranskina, seigarren atala, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“Seigarrena. Galdaketaren hondakinak edo hondarrak, burdinarenak nahiz altzairuarenak, burdinazko edo altzairuzko txatarra edo txatar lingoteak, metal ez-ferrikoen edo haien aleazioen hondakinak edo hondarrak, industriaren zepak, errautsak eta hondakinak, metalak edo haien aleazioak dituztenak.

Galdaketaren hondakinak edo hondarrak, burdinarenak nahiz altzairuarenak, burdinazko edo altzairuzko txatarra edo txatar lingoteak, metal ez-ferrikoen edo haien aleazioen hondakinak edo hondarrak, industriaren zepak, errautsak eta hondakinak, metalak edo haien aleazioak dituztenak izanen dira aduana-zergaren partida hauetan jasota daudenak:

NCE kod.	Salgaiaren izendapena
7204	Galdaketaren hondakinak edo hondarrak, burdinarenak nahiz altzairuarenak (txatarra eta lingoteak).

Metal ferrikoen hondakin eta hondarretan honako hauek sartuta daude:

a) Burdinaren edo altzairuaren galdaketaren fabrikazioan edo mekanizatuan sortzen diren hondakinak, hala nola, torneatze-hautsak, karrakadurak, lingoteen, totxoan, barren edo profilen punta moztuak.

b) Burdinaren edo altzairuaren galdaketaren manufaktura, behin betiko erabilezin gelditu direnak hausturengatik, ebakidurengatik, higaduragatik edo beste arrazoi batzuegatik, bai eta haien hondarrak ere, horietako zati edo pieza batzuk berrerabilgarriak badira ere.

Ez dira sartzen jatorrizko erabilerarako berriz erabil daitezkeen produktuak, dela beren horretan dela konpondu ondoren.

Txatar lingoteak burdina edo altzairu oso aleatuzkoak izan ohi dira, zakar itsatsiak, berriz galdatutako hondakin eta hondar finekin lortuak (harriz lantzearen hautsak edo torneatze-hauts finak), eta haien azala latza eta irregularra da.

NCE kod.	Salgaiaren izendapena
7402	Findu gabeko kobrea; birfintzeko kobrezko anodoak.
7403	Kobre findua, katodo eta katodo-sekzio gisa.

7404 Kobre hondakinak eta hondarrak.

7407 Kobre barrak eta profilak.

7408.11.00 Kobre finduzko alanbrea, zeharkako sekzioaren neurri handiena > 6 mm-koa denean.

7408.19.10 Kobre finduzko alanbrea, zeharkako sekzioaren neurri handiena > 0,5 mm-koa eta <= 6 mm denean.

7502 Nikela.

7503 Nikel hondakinak eta hondarrak.

7601 Aluminio landugabea.

7602 Aluminio hondakinak eta hondarrak.

7605.11 Aleatu gabeko aluminiozko alanbrea.

7605.21 Aluminio aleatuzko alanbrea.

7801 Beruna.

7802 Berun hondar eta hondakinak.

7901 Zinka.

7902 Zink hondar eta hondakinak (kalamina).

8001 Eztainua.

8002 Eztainu hondar eta hondakinak.

2618 Siderurgiako zepa pikordunak (zepa harea).

2619 Zepak (pikordunak izan ezik), batidurak eta siderurgiako gainerako hondarrak.

2620 Metala edo metal-konposatuak dituzten errautsak eta hondakinak (siderurgia izan ezik).

3915 Plastikoa hondakinak, hondarrak eta ebakinak.

47.07 Paper edo kartoi hondakinak edo hondarrak. Paper edo kartoi hondarretan sartuta daude karrakadurak, ebakinak, orri urratuak, egunkari zaharrak eta argitalpenlanak, hondakin-orriak, inprenta-probak eta antzeko artikulak. Definizioan sartuta daude, halaber, paper edo kartoi manufaktura zaharrak, birziklatzeko saltzen direnak.

6310 Oihalezko trapuak, listariak, sokak eta sareak, hondakinetan edo artikulatu erabilezinetan.

70.01 Beira hondakinak edo hondarrak. Beira hondakin edo hondarretan sartuta daude beirazko objektuen fabrikazioaren hondakinak, bai eta erabili edo kontsumitzeko ekointzitatekoak ere. Haien ezaugarri nagusia ertz zorrotzak dira, ebakitzen dutenak.

Berunezko bateria berreskuratua”.

Hamahiru. Eranskina, zortzigarren atala, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

“Zortzigarrena. Zergaren likidazioa, Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 19.5. artikuluko bigarren paragrafoan jasota dauden kasuetan:

Zergaren likidazioa, Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erkidea arautzen duen Legearen 19.5. artikuluko bigarren paragrafoan jasota dauden kasuetan egiteko, arau hauek bete behar dira:

1. Foru lege honen 20. eta 21. artikuluetan jasotako egoerak bukatu edo araubideak azkentzen direnean, likidazioa egin beharko da, aipatutako egoeretan jartzeagatik edo araubideei lotzeagatik salbuespena izan duten eragiketei dagokien zergarena, erregela hauei jarraikiz:

a) Ondasun horien entrega salbuetsiak, bat edo batzuk, egin badira aurretik, sartu beharreko zerga izanen da egindako azken entrega salbuesiari zegokiona.

b) Ondasunen eskurapen salbuetsi bat egin bada, Batasunaren barnekoa, aipatutako egoeretan jarri direlako edo araubideei lotu zaizkielako, eta ondoren ez bada haien entrega salbuesirik egin, sartu beharreko zerga izanen da eragiketa horri salbuespenik izan gabe zegokiona.

c) Ondasunekin eragiketa salbuetsiak egin badira aurreko a) edo b) letretan adierazitako ondotik, edo azken eragiketa horiek egin ez badira, sartu beharreko zerga izanen da letra horietan xedatutakoaren emaitza, gehi ondoko eragiketa salbuetsiei zegokiena.

d) Ondasunen inportazio salbuetsia egin bada aduanakoez beste gordailu araubide bati lotzeagatik eta inportazio horren ondotik ondasun horiekin eragiketa salbuetsiak egin badira, sartu beharreko zerga izanen da inportazio horri salbuespenik izan gabe zegokiona, gehi eragiketa salbuetsiei zegokiena.

2. Aipatutako egoerak bukatzeari edo araubideak azkentzeari dagozkien kuoten likidazioa eta sarrera egiteko betebeharra izanen du une horretan ondasunen jabea denak, bera izanen baita subjektu pasiboa eta berak aurkeztu beharko baitu foru lege honen 112.1 artikuluan aipatzen diren eragiketei dagokien aitorpen-likidazioa.

Aipatutako kuota horien sarrera egiteko betebeharra duenak haien kenketa egiten ahalko du, foru legean 31.1. Bigarrena artikuluan jasotako kasuetarako aurreikusitakoarekin bat.

Zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten enpresaburu edo profesionalak, zergaren subjektu pasibo direnek apartatu honetan xedatutakoarekin bat, arrazoi honengatik likidatutako kuoten kenketa egiten ahalko dute lurraldean establezimendua dutenek egiten duten baldintza berekin eta modu berean.

3. Agindu honetan aipatzen diren gordailuen titularrak dagokion tributu zorraren ordainketaren erantzule solidarioak izanen dira, zortzigarren apartatu honetako aurreko paragrafoetan xedatutakoarekin bat, zergaren lurralde-esparruan establezimendurik ez duten enpresaburu edo profesionalen ordezkari fiskal gisa jardun nahiz ez”.

Bigarren artikulua. Zerga Bereziei buruzko Foru Legearen aldaketa.

Ondorioak 2022ko uztailaren 1etik aurrera izateko, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen 9.1 artikuluari g) letra gehitzen zaio:

“g) Batasuneko edozein estatutako –Espainia ez dena– indar armatuentzat, indar horiek edo haien zerbitzuko langile zibilek erabiltzeko edo haien jangelak edo kantinak hornitzeko, indar horiek atxikita baldin badaude segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan Batasunaren jarduera bat betetzeko defentsa ahalegin bati”.

Hirugarren artikulua. Energiaren, jarduera bultzatzearen eta egonkortasun ekonomiko eta sozialari eustearen arloko neurriak.

Bat. Neurri fiskalak luzatzea.

1. 2023ko ekainaren 30era arte luzatzen da balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 4ko zerga-tasaren aplikazioa Sendagaien Prezioetarako ministerioen arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Erabakian aipatzen diren erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen entrega, inportazioa eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barruan egiten direnetan, Tributu Harmonizazioari buruzko urtarrilaren 13ko 1/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa. Legegintzako foru dekretu horren bidez aldatzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea.

2. 2023ko ekainaren 30era arte luzatzen da balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko zerga-tasaren aplikazioa SARS-CoV-2aren ondorioei aurre egiteko zenbait ondasunen entrega, inportazio eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barruan egiten direnetan, eta zerbitzu prestazioetan, bai eta baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziaren ondorioetarako ere, Tributu Harmonizazioari buruzko urtarrilaren 13ko 1/2021

Legegintzako Foru Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa. Legegintzako foru dekretu horren bidez aldatzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea.

3. 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzen da balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko zerga-tasaren aplikazioa elektrizitate hornidura jakin batzuetan, Tributu Harmonizazioari buruzko uztailaren 5eko 4/2022 Legegintzako Foru Dekretuaren laugarren artikuluan aurreikusitakoa. Legegintzako foru dekretu horren bidez zenbait neurri hartu eta luzatzen dira balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagokienez.

4. 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzen da balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko zerga-tasaren aplikazioa gas naturalaren eta biomasatik datozen briketa edo pelleten eta egurraren entrega, inportazio eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barrukoetan, Tributu Harmonizazioari buruzko azaroaren 30eko 6/2022 Legegintzako Foru Dekretuaren artikulua bakarrean aurreikusitakoa. Legegintzako foru dekretu horren bidez aldi baterako murrizten da Europar Batasunaren barruko erregai jakin batzuen entreegi, inportazioei eta eskurapenei aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren tasa.

Bi. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoa zehaztea 2023ko zergaldirako.

1. 2023ko zergaldian, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria hau izanen da: energia elektrikoa ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzegatik zergadunak instalazio bakoitzeko eta zergaldi bakoitzean eskuratu beharreko zenbatekoa, energia hori zentralerako barretan neurtua, kenduta ekitaldian sisteman sartutako elektrizitateagatik jasotako ordainsariak.

2023ko lau hiruhilekoei dagozkien ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, epe horretan ekoiztutako eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoaren balioa zero eurokoa izanen da, betiere energia hori zentralerako barretan neurtuta.

Hiru. Elikagaien entrega, inportazio eta eskurapen jakin batzuetan, Europar Batasunaren barrukoetan, aldi baterako aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa, bai eta baliokidetasun-errekarguaren ondorioetarako ere.

Ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarra 2023ko ekainaren 30era bitarte izateko:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

- a) Oliba-olioa eta hazi-olioak.
- b) Jateko pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0,62koa izanen da.

Halere, 2023ko maiatzaren 1etik aurrera, aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 10ekoa izanen da, martxoko azpiko inflazioaren urtetik urterako tasa (apirilean argitaratzen dena) ehuneko 5,5 baino txikiagoa bada. Kasu horretan, eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 1,4koa izanen da.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arruntaren ore izoztua eta ogi arrunt izoztua, soil-soilik ogi arrunta egiteko erabiltzen direnak.

b) Ogia egiteko irinak.

c) Edozein animaliak emandako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Fruta, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta laboreak, elikadura kodearen eta hori garatzeko emaniko xedapenen arabera produktu naturalen izaera dutenak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0koa izanen da.

Halere, 2023ko maiatzaren 1etik aurrera, aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 4koa izanen da, martxoko azpiko inflazioaren urtetik urterako tasa (apirilean argitaratzen dena) ehuneko 5,5 baino txikiagoa bada. Kasu horretan, eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0,5ekoa izanen da.

3. Zerga-tasaren murrizketaren onura osoa kontsumitzaileak jasoko du eta, beraz, murrizketaren zenbatekoa ezin izanen da erabili, osorik nahiz partez, enpresen mozkin-marjina handitzeko, produktuen ekoizpen, banaketa edo kontsumo katean prezioak igota; horrek ez ditu ukatzen ukitutako sektoreek, erantzukizun soziala

dela eta, konpromiso gehigarriak beren gain hartu eta publizatzea.

Neurri honen eraginkortasuna egiaztatuko da prezioen bilakaeraren jarraipena egiteko sistema batekin, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eskumeneren esparruan egin beharreko jarduketaz gain betiere.

Laugarren artikulua. Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/2022 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 3.1.m) artikulua, ondorioak 2022ko uztailaren 2tik aurrera izateko:

“m) Enpleguko pentsio-funtsek eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek edo irabazi-asmorik gabeko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateek egindako erosketak”.

Bi. 3.2.i) artikulua, ondorioak 2022ko uztailaren 2tik aurrera izateko:

“i) 1. apartatuko m) letran jasotako salbuespenari dagokionez, enpleguko pentsio-funtsaren,

gizarte-aurreikuspeneko mutualitatearen edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitatearen identifikazioa.

Apartatu honetan aipatzen diren entitateak identifikatzeko, beharrezkoa izanen da, hala bada-gokio, Erakunde Juridikoaren Identifikatzailea (LEI, ingelesezko siglen arabera) jakinaraztea.

Subjektu pasiboak eta eskuratzailleak zerga administrazioaren eskura gorde beharko dituzte jakinarazpenaren gauzatzea eta edukia egiaztatzen dituzten egiaztagirak”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta bertan aurreikusitako ondorioak izanen ditu.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 25ean

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

